## VII Opil Solidarioa

# MUNDU HOBE BATERAKO KEINU TXIKI BAT

**2026ko urtarrilak 5 – Gipuzkoa plaza, 10:00**

Aurten ere, Caritas Gipuzkoa kalera aterako da Errege bezperan, bere Gabonetako keinurik esanguratsuenetako bat herritarrekin partekatzeko: **Opil Solidarioa**, dagoeneko ezinbestekoa bihurtu den hitzordua, familiak, boluntarioak, lagunak eta laguntzaileak biltzen dituena, topaketaren, hurbiltasunaren eta itxaropenaren sinbolo baten inguruan.

**Opil Solidarioaren zazpigarren edizioa urtarrilaren 5ean, astelehena, izango da, 10:00etatik aurrera, Donostiako Gipuzkoa plazan**. Bertan, Gozoa gastronomia elkarteak artisau eran egindako **1.500 opil-zati** salduko dira. Caritas Gipuzkoak bereziki eskertu nahi du Gozoaren konpromisoa, **kalitatezko eta hurbileko** produktua eskaintzen digulako, eta ekimenaren aldeko apustua egiten jarraitzen duelako baita sektorearentzat zaila den testuinguru batean ere. Jai giroko goiza izango da, Opil Solidarioaren izaera komunitarioa indartuko duena.

Poltsa solidarioak **3 euroko** prezioa izango du, eta hauek osatuko dute: **opil-zatia, txokolate beroa eta sorpresak**. Jasotako **dohaintza guztiak Caritas Gipuzkoako programa eta zentroei laguntzeko erabiliko dira**: Ekimen honek aurtengo gure Gabonetako kanpainarekin bat egiten du, zeinak blokeoak eta ezkortasunak eraman ez gaitzaten gonbidatzen gaitu, eguneroko ekintza txikiek mundu hobea eraikitzeko motor gisa balio dutela sinistuz, gure ingurune hurbilenetik hasita.

### POBREZIA EZ DAGO ASKOTAN USTE DUGUN BEZAIN URRUN

Izan ere, **FOESSA Fundazioak** Euskadiko Gizarte Bazterketari eta Garapenari buruz egindako azken txostenean adierazten duen bezala (abenduan kaleratutakoa), **EAEko biztanleen % 35 integrazio prekarioko egoeran dago, eta % 12 gizarte-bazterketako egoeran**. Termino absolutuetan, **259.000 pertsona** inguru bizi dira gizarte-bazterketan Euskadin, eta horietatik **84.000** inguruk modu larrienean bizi dira.

Txostenak nabarmentzen du, gainera, **atzerritar nazionalitatea duten pertsonen bazterkeria tasa (% 41)** espainiar nazionalitatea dutenena (% 8) baino bost aldiz handiagoa dela. Adin-tarteen arabera, **18 urtetik beherako pertsonen % 20ri** eragiten die bazterkeriak, 65 urtetik gorakoen tasa baino hiru aldiz handiagoa (% 5,5), eta adin txikikoak dituzten etxeetan, berriz, baztertutako biztanleriaren % 65 bizi da. Generoa ere desberdintasuna larriagotzen duen faktorea da: emakume bat buru duten familietako biztanleen % 15ek bazterketa jasaten dute, eta gizon bat buru duten etxeetan, berriz, % 10ek. Eta horrek bereziki zigortzen ditu guraso bakarreko etxeak. Datu horiek bultzatu behar gaituzte hurbiletik jardutera.

## BERRIZ ERE, ESKERRIK ASKO

Gozoaz gain, beste entitate batzuk ere elkarlanean ari dira Opil Solidario hau posible egiteko. **Envaseko**, **Komaidak**, **Usabiaga** eta **Cafés Panchito** enpresek berriro lagunduko dute aurkezpena eta magia zaintzen; **Eroskik** eta **Ékolok**, berriz, pakete solidarioari sorpresak gehitzen lagunduko dute. 7. edizio honetan ere, txokolate beroa eskainiko dugu **Gureak**en eskutik.

**Funtsezkoa da, halaber, Caritas Gipuzkoako boluntarioen laguntza**, ahalegin eta maitasun guztia egiten baitute Opil Solidario hori gure Gabonetan gero eta errotuagoa dagoen tradizioa izan dadin. Haiek gabe, ezinezkoa litzateke ospakizun hau.

Opila biribila da, konpartitzen dugun mundua bezalakoa. Mundu horretan pertsona guztiek ezin dituzte Gabon zoriontsuak ospatu, baina keinu txikiek, bat egiten dutenean, itxaropenerako bideak irekitzen laguntzen dute.




**Informazio gehiago edo elkarrizketak: Lide Álvarez Izaguirre, 689.874.575*

## VII Roscón Solidario

# UN PEQUEÑO GESTO PARA UN MUNDO MEJOR

**5 de enero de 2026 – plaza Gipuzkoa, 10:00**

Un año más, Caritas Gipuzkoa sale a la calle la víspera de Reyes para compartir con la ciudadanía uno de los gestos más significativos de su Navidad: el **Roscón Solidario**, una cita ya imprescindible que reúne a familias, voluntariado, personas amigas y colaboradoras en torno a un símbolo de encuentro, cercanía y esperanza.

**La séptima edición del Roscón Solidario tendrá lugar el lunes, 5 de enero, a partir de las 10:00 horas, en la plaza Gipuzkoa de Donostia**, donde se venderán **1.500 raciones** de este dulce, elaboradas de forma artesanal por la **asociación de gastronomía dulce Gozoa**. Desde Caritas Gipuzkoa queremos agradecer especialmente el compromiso de Gozoa, que aporta un producto de **calidad y cercanía**, y que sigue apostando por la iniciativa incluso en un contexto complicado para el sector. Será una mañana festiva que reforzará el carácter comunitario de la iniciativa.

El pack solidario, compuesto por una **porción de roscón, chocolate caliente y sorpresas**, tendrá un precio de **3 euros**. Los donativos recaudados **se destinarán íntegramente a apoyar los programas y centros de Caritas Gipuzkoa**, en coherencia con la campaña de Navidad de este año, que invita a no dejarnos arrastrar por el bloqueo y el pesimismo, y a **creer en el valor de las pequeñas acciones cotidianas** como motor para construir un mundo mejor, empezando por nuestro entorno más cercano.

## LA POBREZA NO ESTÁ TAN LEJOS CON MUCHAS VECES PENSAMOS

Y es que, tal y como señala el último **informe de la Fundación FOESSA** sobre Exclusión y Desarrollo Social en Euskadi, presentado este diciembre, un **35% de la población vasca** se encuentra en situación de integración precaria y un **12% en exclusión social**. En términos absolutos, alrededor de **259.000 personas** viven en exclusión social en Euskadi, de las cuales unas **84.000** lo hacen en su forma más grave.

El informe destaca además que la **tasa de exclusión entre las personas con nacionalidad extranjera (41%)** es cinco veces superior a la de quienes tienen nacionalidad española (8%). Por tramos de edad, la exclusión afecta al **20% de las personas menores de 18 años**, una tasa más de tres veces superior a la de las personas mayores de 65 años (5,5%), y los hogares con menores concentran el **65% de la población excluida**. El género es también un factor agravante de la desigualdad: la exclusión alcanza al **15% de la población en hogares encabezados por una mujer**, frente al 10% cuando el hogar lo encabeza un hombre, una brecha que penaliza especialmente a los hogares monomarentales. Son estos datos los que nos deben empujar a actuar desde lo cercano.

**DE NUEVO, GRACIAS**

Además de Gozoa, otras entidades colaboran para hacer posible este Roscón Solidario. **Envaseko, Komaidak, Usabiaga y Cafés Panchito** volverán a ayudar a cuidar la presentación y la magia, mientras que **Eroski y Ékolo** contribuyen a ir sumando sorpresas al pack solidario. En esta **7ª edición**, volveremos a ofrecer **chocolate caliente de la mano de Gureak**.

Fundamental es también la colaboración del **voluntariado de Caritas Gipuzkoa**, que pone todo su empeño y cariño para que el Roscón Solidario siga convirtiéndose en una tradición cada vez más arraigada en nuestra Navidad. Sin ellas y sin ellos, este roscón no sería posible.

El roscón es redondo, como el mundo que compartimos. Un mundo en el que no todas las personas pueden celebrar una feliz Navidad, pero en el que los pequeños gestos, cuando se suman, ayudan a abrir caminos de esperanza.




**Más información o entrevistas: Lide Álvarez Izaguirre, 689.874.575*